



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko martxoaren 17a

37. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Kontseiluari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (2. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasunari buruzko Foru Lege berri bat taxutu dezan. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa eta neurri zehatzen sorta bat ezar dezan, Nafarroako Erriberako langabezia egoerari aurre egiten laguntze aldera, merindade horren garapen jasangarria bultzatuz. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege-dekretua indargabetu dezan, eta Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun-laguntzarako eskubidea blindatzen jarrai dezan eta Nafarroan bizi diren pertsona guztien osasun-estaldura areagotu dezan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarraibideak eman ditzan hurbiltasunekoa eta ekologikoa izan dadin ikastetxe publikoetara, ospitaleetara, zahar-etxeetara eta gainerako zentro publikoetara bideratutako elikadura-produktu eta -zerbitzuen kontratazio publikoa. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere gain har dezan Tuterako “Fernando Remacha” Kontserbatorioaren finantzaketa. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua, Diputatuen Kongresua eta Senatua premiatzen dira Konstituzioaren 135. artikulua erreforma deusezta dezaten eta 2/2012 eta 27/2013 legeak indargabetu ditzaten. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da aintzat har ditzan neuroendekapenezko gaitotasunak dituzten pertsonen elkarteen eskariak. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Kontseiluari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2016ko martxoaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Nafarroako Kontseiluari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Proposamen hori Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeen eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamen-

tarien elkarteak aurkeztu zuten, eta 2016ko otsailaren 12ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2016ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasunari buruzko Foru Lege berri bat taxutu dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko martxoaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasunari buruzko Foru Lege berri bat taxutu dezan"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroarako osasunari buruzko foru lege berri bat taxutu dezan, zeinetan honako alderdi hauek jasoko baitira gutxienez ere:

1. Osasun arloko esku-hartzeen arauketa berri bat.
2. Osasun arloko udal-eskumenak.
3. Erkidegoaren parte-hartzea, ibilbide laburra izan duten kontsulta-organoak aldatuz eta horiek gardentasunaren eta "osasun-gobernu onaren" arauetara egokituz.
4. Osasun-eskualdeen antolamendu berria. Eskualdeen antolamendua azaroaren 13ko 22/1985 Foru Legean dago jasota.
5. O-NOZen oinarrizko egituraren eta hura osatzen duten organoen definizioa.
6. Gure osasun-sistemaren printzipio gidari berriak:
 - a. Osasun laguntzaren unibertsaltasuna.
 - b. Sarbide-berdintasuna.
 - c. Oinarrizko osasun laguntza erdigunetzat izatea.
 - d. Profesionalen parte-hartzea.

e. Sektorearteko lankidetzak.

f) Gardentasuna eta gobernu ona.

g) Bestelakoak.

7. Osasungintza Publikoaren kontzeptua eta eskumenak hedatzea, bertan larrialdiak, landa inguruneetako laguntza, laguntza soziosanitaria eta laguntza aringarria sartuta.

8. Osasun laguntzaren kalitatearen arauketa.

9. Telemedikuntzaren arauketa.

10. Oinarrizko osasun laguntzako ekipoen bir-definizioa.

11. Osasun sistemaren gobernu ona gogoan hartzea.

12. Lankidetzak publiko-pribatuaren arauketa-esparrua, osasun arloko itunak, atxikitze-hitzarmen bereziak, eta abar.

13. Egintza medikoen araubide juridiko berria.

14. Osasungintza publikoaren gotortzea, behar adinako finantzaketa daukala eta zentroak eta zerbitzuak zuzenean kudeatuko direla bermatuz

15. Prestazioen zorro osagarriaren arauketa, zorroa balizko koordainketen aitzinean gotortuz.

16. Irakaskuntzaren eta ikerkuntzaren blindatzea, Miguel Servet Fundazioaren eta Nafarroako Osasun Ikerkuntza Institutuaren bidez.

17. Kontzientzia eragozpena arautzea.

18. Osasungintzako langileen dedikazio eskusiboa ahal den gehiena bultzatzea"

Iruñean, 2016ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa eta neurri zehatzen sorta bat ezar dezan, Nafarroako Erriberako langabezia egoerari aurre egiten laguntze aldera, merindade horren garapen jasangarria bultzatuz.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko martxoaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa eta neurri zehatzen sorta bat ezar dezan, Nafarroako Erriberako langabezia egoerari aurre egiten laguntze aldera, merindade horren garapen jasangarria bultzatuz”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jarduketa eta neurri zehatzen sorta bat ezar dezan, Nafarroako Erriberako langabezia egoerari ahal den neurrian aurre egiten laguntze aldera, merindade horren garapen jasangarria bultzatuz”.

Iruñean, 2016ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege-dekretua indargabetu dezan, eta Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun-laguntzarako eskubidea blindatzen jarrai dezan eta Nafarroan bizi diren pertsona guztien osasun-estaldura areagotu dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko martxoaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege-dekretua indargabetu dezan, eta Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun-laguntzarako eskubidea blindatzen jarrai dezan eta Nafarroan bizi diren pertsona guztien osasun-estaldura areagotu dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege-dekretua indargabetu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroan bizi diren pertsona guztien osasun-laguntzarako eskubidea blindatzen jarrai dezan eta osasun-estaldura areagotu dezan”.

Iruñean, 2016ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarraibideak eman ditzan hurbiltasunekoa eta ekologikoa izan dadin ikastetxe publikoetara, ospitaleetara, zahar-etxeetara eta gainerako zentro publikoetara bideratutako elikadura-produktu eta -zerbitzuen kontratazio publikoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko martxoaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarraibideak eman ditzan hurbiltasunekoa eta ekologikoa izan dadin ikastetxe publikoetara, ospitaleetara, zahar-etxeetara eta gainerako zentro publikoetara bideratutako elikadura-produktu eta -zerbitzuen kontratazio publikoa."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jarraibideak eman ditzan, hurbiltasunekoa eta, ahal den neurrian, ekologikoa izan dadin ikastetxe publikoetara, ospitaleetara, zahar-etxeetara eta gainerako zentro publikoetara bideratutako elikadura-produktu eta -zerbitzuen kontratazio publikoa, kasuko sektoreekin lankidetzan (sindikatuak, ekoizle-kooperatibak, kontsumitzaile-kooperatibak, eta abar) eta legedi indardunarekin bat.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lizitazio-prozeduretan

gizarte- eta ingurumen-klausulak zehatz ditzen, produktu horiek erostean edo zerbitzu horiek kontratatzean ez dakion prezioari soilik errepara, esleipena egiteko irizpide gisa, eta eskaintzen gizarte- eta ingurumen-alderdiak ere har daitezen aintzat. Irizpide horien artean, honako hauek sartu beharko lirateke:

2.1. Laneko segurtasun eta osasun arloko araudia betetzeari buruzko klausulak.

2.2. Berdintasunari buruzko klausulak: enpresan emakume langileek egiten duten ehunekoa, norberaren bizitza eta lana bateragarri egiteko neurriak, eta sexu-jazarpeneko edo sexua dela medio egindako jazarpeneko jarrerak prebenitzeko neurriak.

2.3. Tokiko enplegua sustatzeari buruzko klausulak: lurraldeko enplegu-zentrozen bidez kontratazea langileen ehuneko zehatz bat, enplegu bulegoetan izena emandako pertsonak kontratatzea, kontratazio mugagabeko ehuneko handiak, eta prestakuntza-ekintzak sustatzea esleitutako zerbitzuari atxikitako pertsonen artean"

Iruñean, 2016ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da bere gain har dezan Tuterako “Fernando Remacha” Kontserbatorioaren finantzaketa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko martxoaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da bere gain har dezan Tuterako ‘Fernando Remacha’ Kontserbatorioaren finantzaketa.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Tuterako Kontserbatorioiko ira-

kaskuntzak ehuneko ehunean finantza ditzan 2017ko aurrekontuetatik aitzina, eta Tuterako Udalarekiko negoziazio-prozesu bat ireki dezan, kalitatean eta egonkortasunean oinarritutako irizpideekin, Tuteran goi mailako musika-irakaskuntzak garatze aldera, Fernando Remacha Kontserbatorioari behar diren azpiegitura eta baliabideak emanez.”

Iruñean, 2016ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernuak, Diputatuen Kongresua eta Senatua premiatzen dira Konstituzioaren 135. artikulua erreforma deusezta dezaten eta 2/2012 eta 27/2013 legeak indargabetu ditzaten.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko martxoaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernuak, Diputatuen Kongresua eta Senatua premiatzen dira Konstituzioaren 135. artikulua erreforma deusezta dezaten eta 2/2012 eta 27/2013 legeak indargabetu ditzaten.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak, Diputatuen Kongresua eta Senatua premiatzen ditu Konstituzioaren 135. artikulua

erreforma deusezta dezaten eta 2/2012 eta 27/2013 legeak indargabetu ditzaten.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak, Diputatuen Kongresua eta Senatua premiatzen ditu arau horiek bilatzen duten helburua lor dadin ekiditeko jarduketak susta ditzaten; alegia, toki administrazioak erabiltzea murrizketapolitikak inposatzeko eta, finean, horiek desagerarazteko.

3. Nafarroako Parlamentuak erabaki hau Nafarroako Gobernuari helarazteko konpromisoa hartzen du, izan beharreko ondorioak izan ditzan.”

Iruñean, 2016ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da aintzat har ditzan neuroendekapenezko gaixotasunak dituzten pertsonen elkarteen eskariak.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko martxoaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da aintzat har ditzan neuroendekapenezko gaixotasunak dituzten pertsonen elkarteen eskariak".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du neuroendekapenezko gaixotasunak dituzten pertsonen elkarteen eskariak aintzat har ditzan, baremoak berrikusteko eta eguneratzeko prozesuetan gaixotasun horien

espezifikotasun guztiak kontuan hartuta, uneoro balorazio-prozesuak ekitatez egin ahal izateko eta endekapen-prozesuaren aurrerapenaren ezaugarriari begiratuta.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du desgaitasun-maila ebaluatzeko baremoa alda dezan, neuroendekapenezko gaixotasunak diagnostikatu ondoren ehuneko 33ko desgaitasuna aitortuta, balorazioa bera zein ere den, halako moldez non gaixotasun horien sorrerek eta bilakaerek agertzen duten askotarikotasunaren ondoriozko espezifikotasuna konpentsatuko baita".

Iruñean, 2016ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

